



MILIAN i MASSANA, Antoni

Zuzenbide Administratiboko katedraduna  
Universitat Autònoma de Barcelona-Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa  
08193 Bellaterra (Bartzelona)  
antoni.milian@uab.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 29-38]

---

# Katalanaren Legearen ildo berritzaileak\*

(The legislative novelties of the Law on the Catalan language)

---

**K**atalanaren normal-  
kuntzarako, Kataluniako Hizkuntza  
Politikari buruzko 1/1998 Legea  
onartu zuen bertako  
Parlamentuak, aurrez zegoenare-  
kiko berrikuntza esanguratsu  
batzuk sartuz. Lege honek ekarri  
dituen aldaketen berri ematen da  
hemen, zeintzuk diren ekarri  
dituen berririk goraiagarrienak,  
eta zein alderditan gelditu den  
hankamotz.

**E**l Parlamento de  
Cataluña aprobó la Ley 1/1998 de  
Política Lingüística para la norma-  
lización del catalán, la cual intro-  
dujo sustanciosos cambios  
respecto a la anterior. Este trabajo  
da cuenta de las modificaciones,  
de los puntos más destacables,  
así como de los aspectos en los  
que a juicio del autor se debía  
haber profundizado más.

**L**e Parlement de  
Catalogne approuva la Loi 1/1998  
de Politique Linguistique pour la  
normalisation du catalan. Celle-ci  
introduisit des changements subs-  
tantiels par rapport à l'antérieure.  
Ce travail rend compte des modifi-  
cations, des points les plus signifi-  
catifs, ainsi que des aspects qui  
devraient être plus approfondis,  
selon l'auteur.

---

\*Itzultzailea: Koro Garmendia Iartza.

1. Sarrera. 2. **Urtarrilaren 7ko 1/1998 Hizkuntza Politikako Legearen hitzaurrean adierazitako zioak, apirilaren 18ko Hizkuntza Normalkuntzako 7/1983 Legea ordeztuko beharra justifikatzen zutenak.** 3. **Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko apirilaren 18ko 7/1983 Legearen ordezkapenaren testuingurua.** 4. **Hizkuntza Politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legearen berrikuntzarik azpimarragarrienak:** 4.1. Katalana hizkuntza propioa izatearen ondorio juridikoak. 4.2. Katalana, Administrazio publikoetako barne jardueretako eta prozedura administratiboetako hizkuntza. 4.3. Katalunian finkatutako Administrazio Publikoetako pertsonalaren plazak lortzeko hautaketa prozesuan katalanaren ezagutza frogatu beharra. 4.4. Lege mailako arau baten bidez, katalana irakaskuntza ez unibertsitariotan normalean erabili beharreko irakasbide eta ikasketetako hizkuntza bezala finkatzea. 4.5. Hizkuntza eskuhartze konstriktiboa sektore pribatuan. 5. **Kontsiderazio kritiko batzuk.**

## 1. Sarrera

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko nizkioke Eusko Ikaskuntzari, Euskararen Normalkuntzarako Legearen 17. urteurrenari buruz antolatutako mintegi honetan parte hartzera gonbidatu izanagatik.

Katalanaren Legearen ildo berritzaileez hitz egitea egokitu zait. Kataluniako Parlamentuko Hizkuntza Politikari buruzko 1/1998 Legeak, urtarrilaren 7koak, aldaketa nabarmenak ekarri ditu aurrekoarekiko, hau da, Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko apirilaren 18ko 7/1983 Legearekiko, zeina Euskararen Normalkuntzarako Legea onartu zenetik — hizkuntza propioa daukaten autonomia erkidegoetako normalkuntzarako legeen artean lehena— gutxira sortu baitzen. Lege berriaren berrikuntzarik esanguratsuenak, zenbait sektore pribaturi —sozioekonomikoari bereziki— ezarri dizkien hizkuntza betebeharrak dira; ez da sustapen neurriak finkatzera mugatzen, baizik eta hertsapenezko neurri inposatzaileak barneratu ditu, behintzat katalana zenbait supostu zehatzetan erabiltzera behartuz. Geroago xehetasunez aztertuko ditut supostuak.

Azalpen honetan, 1998ko Legeak 1983koarekiko dauzkan berrikuntzez mintzatuko naiz. Aurreratzen dizuet horien artean nagusia, sektore pribatuan egin duen eskuhartze konstruktiboa dela, eta lege berri hau aurrekoarekiko kualitatiboki desberdintzen dutenak, aipatu berrikuntza eta katalana erabiltzeko betebeharrari muzin egiten diotenei dagozkien zehapenen aurreikuspena dira.

Nolanahi ere, berrikuntza nagusi hau nahiz nire ustez hemen azaltzeko moduko garrantzia

eta interesa daukaten beste batzuk aztertzen hasi baino lehen, zera proposatzen dut: legegintza aldaketen norainokotasuna hobeto ulertu ahal izateko, lege testu berria justifikatu duten inguruabarrak eta Legea onartu den kontestuaren berri ematea, oso gaineratik bada ere.

## 2. Urtarrilaren 7ko 1/1998 Hizkuntza Politikako Legearen hitzaurrean adierazitako zioak, apirilaren 18ko Hizkuntza Normalkuntzako 7/1983 Legea ordeztuko beharra justifikatzen zutenak

Hitzaurrea bera, araudi berria justifikatzen duten zioak azaltzeaz arduratzen da. Bertan, 1983ko Hizkuntza Normalkuntzarako Legea onartu zenez geroztik urte asko igaro direla dio, eta bitarte horretan aldaketa esanguratsuenak eman direla, hala nola arlo teknologikoan informatikaren eta informazio autopisten erabilera orokortu izana; kultur eta merkataritza aldaketak, merkataritza askatasunaren areagotzea, eta abar; Espainia Europar Komunitateei atxiki izana, ondorioz barne ordenamenduari gainezartzen zaion ordenamendu oso bat barneratuz, arlo anitzetan izugarriko ondorioak dauzkana, hizkuntza arloa barne (gogoan izan asko direla gauzatzen ari garen hizkuntza politikak nolabait aurrefinkatzen edo baldintzatzen dituzten Europar Komunitateetako Justizia Auzitegiaren epaiak). Hitzaurreak beste fenomeno garrantzitsu bat ere aipatzen du, hots, Katalunian 1983. urteaz geroztik katalanaren ezagutza orokortu izana. Berehala emango dizkizuet zifra batzuk. Kontua da —eta hizkuntzaren planifikatzaileak ohartu dira honetaz— orokortasun hau gertatu arren, alor batzuetan —sozioekonomikoa adibidez— hizkuntza ez dela lehen baino gehiago erabiltzen. Eta alor zehatz batzuetan dagoen erabilera gabedia hau da legegilea hertsapenezko neurriak hartzera bultzatu duena, katalana erabiltzera behartzeko. Katalanaren ezagutzaren hazkundearen zifrei dagokienez, 1986ko erroldatzea dela-eta egindako lehenengo hizkuntza erroldako portzentaiak eman eta 1996koekin alderatuko ditut, hau da, azken zentsukoekin. Bada, 1986an, erroldatuen %90,3ak katalana ulertzen zuela zioen; hamar urte geroago, %94,97ak; hazkunde portzentuala nahiko eskasa izan da hemen. Katalana zekitenak %64 ziren 1986an, eta 1996an %75,3, %10eko hazkundera baino handiagoa eman delarik. Irakurtzen zekitenak %60,5 ziren 1986an; 1996an, aldiz, %72,35. Baina jauzi kualitatiborik azpimarragarriena, katalanez idazten dakitenen artean eman da: %31,5 86an, %45,84 96an. Ikusitako zioekin batera, hitzaurreak beste bi ere

## “ Araudi berria justifikatzen duten zioak azaltzean legegileak garrantzi handiko fenomeno bat ahaztu duela iruditzen zait: zerbitzu publikoen liberalizazio eta pribatizazioa ”

aipatzen ditu: batetik, hizkuntza zuzenbidea deiturikoaren bilakaera —Konstituzio Auzitegiak emandako epaien ondorioz, doktrina juridikoak prestatutako lanen ondorioz, etab.—; eta, bestetik, nazioarteko itun, hitzarmen, ebazpen eta agiri batzuk aipatzen dira, izan ere, hizkuntza eskubideen babesak aurrera egiten duela ematen dute aditzera, eta horrek ere justifikatu egingo luke katalana erabiltzeko araudi berri bat.

Nolanahi ere, desberdinak iruditzen zaizkit zioak. Batzuk benetan esanguratsuak dira 1983ko Legea erreformatzeko beharra argudiatzeko, baina bada erreala beharrean sinbolikoa iruditzen zaidanik ere; esaterako, nazioarteko itun, hitzarmen, ebazpen eta agirien azken hau. Zeren eta hitzaurreak aipatutako nazioarteko itun, arau eta gainerako agiriak aztertuz gero, hizkuntza eskubideei aitortzen zaien babesak, oro har, gure hizkuntza normalkuntzarako legeetan aurreikusten dena baino txikiagoa dela ikusiko dugu, eta, beraz, ez lirateke itun, ebazpen eta agiri hauek izango Legearen erreforma edo aldaketa justifikatuko luketenak. Ostera, legegileak garrantzi handiko fenomeno bat ahaztu duela iruditzen zait, 1980-90 bitartean gertatu dena, eta ziurrenik oraindik amaitu ez dena: zerbitzu publikoen liberalizazio eta pribatizazioa, alegia. Jakingo duzuen bezala, Administrazio publikoek zerbitzu publiko multzo bat eskaintzen zuten zuzenean edo emakidaz (hau da, zeharkako kudeaketaren bidez), eta zerbitzuotan, titularitate publikokoak izanik, hizkuntzen ofizialkidetasunaren arauak errespetatu beharra zegoen, beti betetzen ez ziren arren. Zerbitzu hauek pribatizatu eta liberalizatu ahala, ordea — eta, ondorioz, pribatuen esku geldituz—, aintzatetsita geneuzkan baina agian errespetatzen ez ziren hizkuntza eskubideak bermatzearen segurtasuna galdu dugu, arrazoi

xume batengatik: lehen Administrazio Publikoak ziren eskaintzen zituztenak, edo titulartasun publikokoak ziren behintzat, nahiz eta subjektu pribatu batzuek eskaini. Zerbitzu publikoen liberalizazio eta pribatizazio honek, zerbitzu mota hauei legezkiekeen hizkuntza eskubideak arriskuan jartzen dituela esango nuke, eta kasu askotan jada zokoratu ere egin dituela. Eta hori Legearen hutsune bat da; ez hitzaurreak ahaztu duelako bakarrik, baizik eta baita oraintxe aipatu dudan fenomeno hau Legearen arau zehatz batzuk artikulatzeko orduan kontuan hartu beharra zegoela iruditzen zaidalako ere.

### 3. Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko apirilaren 18ko 7/1983 Legearen ordezkapenaren testuingurua

Testu berria justifikatzen zuten inguruabarrak ikusi ondoren, labur-labur Lege berria onartu zeneko testuinguruaz hitz egitea komeni da. Aspalditik aldarrikatzen zen Katalunian Hizkuntza Normalkuntzarako Legearen erreforma. Horrela, 1993ko azaroan, Normalkuntzarako Legea aldatzeko aurreproiektu bat atera zen. Arlo sozioekonomikoan, zineman edo irratidifusioan katalanaren erabilera bere ezagutzaren handitzearekin bat ez zetorrela ikusirik, zenbait jardueratan katalana erabiltzeko betebeharra ezartzen zen aipatu aurreproiektuan, eta sektore zinematografiko eta irratidifusioetarako hizkuntza kuota batzuk finkatzen ziren. Aurreproiektu honek, hala ere, ez zuen aurrera jo, eta ez zen Parlamentura iritsi ere egin, komunikabide zehatz batzuetatik jasotako izugarritzko kritiken ondorioz. Irakaskuntza ez unibertsitariora gehienbat katalanez emateagatik, hizkuntza murgilketa deitutako hezkuntzako hizkuntza sistema katalanaren aurkako kritika eta kanpainarekin batera jazo zen. Hezkuntzako hizkuntza sistemaren aurka antolatutako kanpainari aurre hobeto egin eta presioa gutxitzeko, Gobernu katalanak Hizkuntzaren Normalkuntzarako Legearen erreforma bertan behera uztea erabaki zuen. 1986an, aldatu egin zen eszenatoki politikoa. Partidu Popularreko Gobernuak Convergència i Unió-ren beharra dauka Estatu mailako gobernagarritasuna mantentzeko; Convergència i Uniók, aldiz, Kataluniako Parlamenturako azken hauteskundeetan ostean gehiengo absolutua lortu ez arren, gehiengo handi bat dauka, eta horri esker bere lege proiektuak izapidetu eta onartzeko ia ez dauka beste taldeen laguntzaren beharrik. Egoera abantailatsu hau kontuan izanik, eta Hizkuntzaren Normalkuntzarako Legearen erreforma bati gehien aurkajarriko zitzaiona hain zuzen ere Partidu Popularra izango zela jakinik, Convergència i Uniók egoera hori Legea aldatzeko aprobetxatzea erabaki zuen, eta, are gehiago, berri baten ordezkapenaren testuingurua.



Hauetxek dira lege testu berria inspiratzen duten irizpide zuzentzaileen oinarriak: lehenik eta behin, katalana Kataluniako hizkuntza propioa dela; bigarren, katalana eta gaztelera hizkuntza ofizialak direla; eta, hirugarren, hizkuntza xedagarritasunaren printzipioa, zeinaren arabera, edozein hiritar artatzeko prest egon beharra baitagoen, erabilitako hizkuntza ofiziala edozein izanik, bai eremu ofizialean, bai harreman pribatuen eremuan, eta arlo sozioekonomikoan bereziki. Bestetik, erreforma edo ordezkapenaren aurka azaltzen direnek hiru puntutan oinarritzen dute beren oposaketa. Hona beren lema: hizkuntza inposatarik ez, hizkuntza kuotarik ez, hizkuntza zehapenik ez. Parlamentuan, ponentzia bateratuko prozedura baten bidez egiten da izapidetza, eta talde bakoitzak bere testua eraman dezake, nahiz eta prozesu hau gidatzen duena Ganbaran ia gehiengo daukana izan. Beraz, izapidetzaren hasiera-hasieratik Convergència i Uniók mantendutako filosofiari erantzuten dio batik bat Legearen behin betiko testuak.

#### **4. Hizkuntza Politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legearen berrikuntzarik azpimarragarrienak**

Lege berria sortu den ingurua ezagututa, Hizkuntza Politikako Legearen berrikuntzarik azpimarragarrienak hobeto ulertu eta aztertzeko moduan gaudela iruditzen zait. Ez naiz, beraz, berrikuntza guztietan geldituko. Nire ustez garrantzitsu eta oinarritzkoenak direnei helduko diet.

##### **4.1. Katalana hizkuntza propioa izatearen ondorio juridikoak**

Legeak ahalegin bat egiten du hizkuntza bat propioa izateak juridikoki zer esan nahi duen eta katalana hizkuntza propioa izateak zein ondorio dauzkan zehazteko. Logikoa, horixe baitzen bere inspiratzaileak azpimarratu nahi zuena. Legearen hitzaurrean katalanari hizkuntza propio gisa egiten zaizkion aipamenez gain, 2. artikulua da ondorio juridikoak zehazten dituena. Arau honen 2. atalak dioenez, katalana, hizkuntza propio bezala, "Kataluniako erakunde guztien hizkuntza da, eta bereziki Generalitateko Administrazioarena, tokiko Administrazioena, gorporario publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, komunikabide instituzionalena, irakaskuntzakoa eta toponimiakoa". Jarraian datorren b atalean esaten denez, katalana da, hizkuntza propioa izanik, Estatuko Administrazioak Katalunian lehentasunez erabili beharreko hizkuntza, eta baita gainerako erakundeek nahiz orokorrean jendeari zerbitzuak

eskaintzen dizkieten enpresa eta entitateek ere. Ez dira zerbitzu publikoak, jendearentzako zerbitzuak baizik; beste hitz batzuetan esanda, jendeari irekita dagoen edozein enpresa.

Zer esan nahi du arau honek? Nire ustez, arau honetako b atalak, balio inperatiboa baino gehiago, programatikoa dauka, zaila delako Kataluniak Estatuko Administrazioaren zerbitzuak hizkuntzaren aldetik antolatzeke eskuduntza legegilerik izatea. Katalanari lehentasuna emateko joerak egon beharra dauka, baina, egun behintzat, ia ezin da besterik esan Kataluniako Parlamentuaren eskuduntza araugilearen ikuspegitik. Hizkuntza propio kontzeptuari dagokionez, ohar bat. Nik uste dut neurri batean akats bat izan dela Lege berriaren oinarritzko eskeletua, eta ia ardatz nagusi bakarra, katalana hizkuntza propioa denaren aitortza izatea. Ez dut esan nahi Kataluniako Autonomia Estatutuko 3.1. artikuluan jasotako baieztapen honetatik ondorio juridikorik ateratzerik ez dagoenik. Zalantzarik gabe, neroni ere katalana, hizkuntza propioa izanik, lehentasunez erabili beharrekoa delaren iritzikoa naiz. Baina hizkuntza propioaren kontzeptuak araudi berriko kontzeptu inspiratzaile bat izan beharko zukeen, Legearen kontzeptu ardatz edo artikulatzaile ia eskusiboa izan beharrean. Hizkuntza propioaren kontzeptuari estuki lotuta, Legeak ahaztu egin ditu oinarritzko kontzeptu juridikoak, zeintzuei esker, antzeko ondorioetara iritsi ahal izateaz gain, Legea auzitegien aurrean hobeto defendatu ahal izango baitzatekeen. Hizkuntza propioaren kontzeptua apur bat lauso edo etereoa da, eta garrantzia aitortu behar zaio; baina bakarrik azaltzen da, beste kontzepturik gabe, hala nola jabetza publikoaren kontzeptua —zeina Legeak ez baituen erabiltzen, eta uste dut bazeuzkala erabiltzeko adina zio—, edo partikularrek funtzio publikoak egikaritzea, edota zerbitzu unibertsalaren kontzeptua —zeinak gaur egun hein batean zerbitzu publikoa ordeztzen duen—. Hau da, mundu juridikoan aski landu diren kontzeptuak, Legeari konsistentzia gehiago emango ziotenak, eta Legea eztabaida juridikoetan defendatzeko beharbada konbentzigarriagoak izango zirenak.

##### **4.2. Katalana, Administrazio publikoetako barne jardueretako eta prozedura administratiboetako hizkuntza**

Legearen beste berrikuntza bat, aipagarria nire ustez, 9 eta 10. artikuluetan aurkitzen duguna da. Lehenengoan, xehetasun handiz zehazten da Katalunian Administrazio publikoen barne jardueretan erabili behar den hizkuntza zein den, Estatuko Administrazio periferikoan salbu.





Generalitateko Administrazioari barne jardueretako hizkuntza katalana izango dela esaten da, baina baita Kataluniako Administrazio eta gainerako gorpuzio publikoetako ere. Katalana Kataluniako hizkuntza propioa izatearen ondorio logiko bat da, zeinarekin erabat ados nagoen; hortaz, katalanak izan behar du Administrazioek beren barne jardueretan ohiki erabili beharko duten hizkuntza. Bestalde, 10. artikulua dio katalanak izan behar duela prozeduretan erabili beharreko hizkuntza. 1983ko Legeak ez zuen prozeduretako hizkuntza finkatu, ez eta zehazteko irizpiderik ere ezarri; prozedura administratiboaren inguruan gauza bakarra aurreikusi zuen: partikularrak edozein hizkuntza ofizialetan zuzen zekizkioketela Administrazioari, eta hori, katalana eta gaztelaren ofizialtasuna aintzatestearen ondorio logiko eta naturala zen. Era berean, 1983ko Legeak eskubidea ematen zien partikularrei jakinarazpen eta komunikazioak nahiz espedienteen eduki guztiaren testigantza, beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jasotzeko. Hitz bitan esanda, 1983ko Legeak harremanetarako hizkuntza arautzen zuen, baina ez zuen ezer esaten Administrazioaren barne jarduerako hizkuntzaz. Beranduago geldituko zen katalana Generalitateko Administrazioari barne jardueraren hizkuntza bezala finkatuta, martxoaren 13ko 107/87 Dekretuaren bidez. Gainerako Administrazioek, horri buruzko erregelarik gabe jarraitu zuten. Orain, Hizkuntza Politikako Legeak, Generalitateko Administrazioaz gain, zeina 1987. urteaz geroztik aipatutako Dekretuaren esanetara dagoen, tokiko Administrazioak ere lotesten ditu.

#### 4.3. Katalunian finkatutako Administrazio Publikoetako pertsonalaren plazak lortzeko hautaketa prozesuan katalanaren ezagutza frogatu beharra

Beste berrikuntza bat, erlatiboa kasu honetan, Katalunian finkatutako Administrazio Publikoetako pertsonalaren plazetara jotzeko hautaketa prozeduretan katalana ezagutzen dela derrigorrez frogatu behar izatean dago, Estatuako Administrazio Publikoaren kasuan izan ezik, Kataluniako Parlamentuak ez baitauka honen gaineko legegintza eskumenik. Berrikuntza erlatiboa da beraz. Betebehar honi dagokionez 1983ko testura joz gero, ikusiko genuke katalanaren ezagutza frogatu behar izate hau irakaskuntza ez unibertsitarioko irakasleentzat bakarrik aurreikusten zela; horiek bakarrik zeukaten plaza bat bete ahal izateko katalana ezagutzeko beharra. Ez zen deus esaten funtzio publikoaren osotasunari buruz. Generalitateko Administrazioaren Funtzio Publikoaren Legea eman arte itxaron behar izan zen —zeina bi urte geroago eman baitzen, 1985ean—, honek bere

## “ Udallerri guztiak behartuta daude beren hautapen probetan katalanaren ezagutza frogatu beharra jasotzera ”

34. artikuluan Generalitateko Administrazioaren zerbitzura aritzeko pertsonala hautatzeko prozesuan "katalanaren ahozko nahiz idatzizko ezagutza frogatu" beharra finka zezan —personal mota orori buruz mintzo zen araua (funtzionarioez, pertsonal ebentualaz, bitarteko pertsonalaz edo laboralaz)—. Ez zioen ezer frogatu beharreko ezagutza mailari buruz. Helegite bat tarteratu zen Konstituzio Auzitegiaren aurrean 34. artikulua honen aurka, eta Auzitegiak otsailaren 28ko 46/1991 Epaia eman zuen bitartean, esekita egon zen; horrenbestez, sei urtetan zehar ezin izan zen katalana ezagutzeko galdakizun hau aplikatu. Aipaturiko Epaian, Konstituzio Auzitegiak araua zuzena dela onartzen du, konstituzionala, nahiz eta katalanaren ezagutza honek, eskatzen den ezagutza mailaren eta egikaritu beharreko postutik eratorritako beharren arteko proportzionaltasuna gorde behar duela adierazten duen. Guztiz zuzena iruditzen zait pronuntziamentu hau, erabat logikoa, eta bat dator Zuzenbide konparatuan aurkitzen ditugun beste batzuekin. Badago hizkuntza galdakizunak ezartzerik, baina, diskriminatzaileak izan ez daitezten, egikaritu beharreko postutik eratorritako hizkuntza beharrekin bat etorri behar du galdakizun mailak. Hauxe da, hain zuzen ere, Lege berriko 11. artikulua esaten duena, eta, teknikoki, Funtzio Publikoaren Legearen 34. artikulua baino zehatzago gainera. Izan ere, 11. artikulua 3. zenbakiaren bukaerak "dagokien plazetako berezko funtzioen maila egokian" dio. Artikulu honek, bestetik, kontuan hartu beharreko beste berrikuntza bat dakar, ez baitu Generalitateko funtzio publikoak bakarrik diziplinatzen, baizik eta baita tokiko Gorpuzioetako funtzio publikoak eta Kataluniako unibertsitateetako administrazio eta zerbitzuetako pertsonala ere. Eta azpimarratu egin nahi dut artikulu hau toki Administrazioetako pertsonalari ere badagokiola, zeren eta Lege berria indarrean sartu zen arte ez zegoen Katalunian pertsonal honi buruzko hizkuntza araudirik, salbuespen batekin: Estatuak izaera nazionalako gaitasuneko toki Administrazioetako funtzionarioei buruz ezarri eta erkidego autonomo bakoitzak garatutako araudia, zeintzuei lehenagotik galdatzen



baitzitzaien Katalunian katalanaren ezagutza, Erkidego Autonomoak hala erabaki zuelako. Baina, zer gertatzen zen toki Administrazioen zerbitzura zegoen gainerako pertsonalarekin? Ordura arte ez zegoen araudirik, eta Administrazio bakoitzak, gorporazio lokal bakoitzak, udal bakoitzak, bere irizmenaren arabera finkatzen zituen hizkuntza galdakizunak. Nolanahi ere, Hizkuntza Politikarako Legea indarrean sartu zenez geroztik, udalerrri guztiak behartuta daude beren hautapen probetan katalanaren ezagutza frogatu beharra jasotzera. Zalantza izpirik gera ez dadin, Legearen lehenengo Azken Xedapenak, Kataluniako 1987ko Udal eta Tokiko Eraentza Legeko 294.2 artikulua aldaketa bat aurreikusten du, esanez tokiko entitateek deitutako hautaketa prozesuetan "katalanaren ezagutza frogatu behar dela".

#### 4.4. Lege mailako arau baten bidez, katalana irakaskuntza ez unibertsitarioan normalean erabili beharreko irakasbide eta ikasketetako hizkuntza bezala finkatzea

Laburki bederen, irakaskuntza ez unibertsitarioaren sektoreaz hitz egin nahiko nuke. Sektore honi ez zaio berez berrikuntza sustantiborik egin, baina bai azpimarratu nahiko nukeen formazko bat. Ziur aski jakingo duzue zein den gure hezkuntzako hizkuntza sistema; besterik ez bada, prentsan behin eta berriro izan delako albiste. 1983ko Hizkuntzaren Normalkuntzarako Legeak, lehenengo irakaskuntza ikaslearen ohiko hizkuntzan jasotzeko eskubidea bermatzen zuen; alegia, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko lehenengo zikloa, LOGSE baino lehen, eta lehen mailako irakaskuntzako lehenengo zikloa, ondoren. 1983ko Legeak lehen mailako irakaskuntzako lehenengo zikloan bakarrik bermatzen zion ikasleari irakaskuntza bere ohiko hizkuntzan jaso ahal izatea; ez zuen besterik esaten erabilerarako hizkuntzari zegokionez, eta horixe zen hezkuntzako hizkuntza kontuaren oinarrizko gaia. Besterik finkatzen ez zuenez, Legea garatuko zukeen erregelamenduaren esku uzten zuen —hau da, Gobernuaren esku— lehenengo mailako irakaskuntzaren ondorengo eskolako hizkuntza ereduaren zehaztapena. Beraz, eredu batzuk zeuden aukeran. Adibidez, ikasleari gainerako mailatan ere bere hizkuntzako irakaskuntza bermatzea; hizkuntzaren aukeraketa bermatzea. Edota hemen, Euskal Herrian, daukazuen B ereduaren antzeko ereduren bat, zeinaren arabera irakaskuntzaren %50a derrigorrez katalanez egingo litzatekeen, eta beste %50a gazteleraz. Azkenean ezarritako ereduak ez zen ez bata ez bestea izan. 1983ko Legea garatzen duen Dekretuan, lehenengo

mailako irakaskuntzaren osteko irakaskuntza ez unibertsitariorako eredu bat finkatu zen, derrigorrez katalanez eman beharreko alor eta ikasgaien arabera, hezkuntzaren %70a katalanez eman behar zelarik eta %30a gazteleraz, gutxi gorabehera. Hauxe da helegin eta Konstituzio Auzitegira iritsiko zen ereduak. Eta 1992an, LOGSErekin ezarritako irakaskuntzako ordenazio orokor berria aprobetxatuz emandako dekretu berri baten bidez, 1983ko Dekretua aldatu zen, katalanaren aldeko eredu lurraldetarrago bat finkatuz. Orain zehatz-mehatz esaten da katalana erabiliko dela ohiko irakasbideko eta ikasteko hizkuntza gisa. Beraz, lehenengo mailako irakaskuntzako lehenengo ziklotik aurrera, Kataluniako irakastegietan normalean katalanez irakatsiko da. Konstituzio Auzitegia 1983ko Dekretutik eratorritako ereduari buruz pronuntziatu zen arren, bertan erabili zituen terminoak ikusita, Goi Auzitegiak 1992ko Dekretuko ereduak ere abalatu duela esan dezakegu —hizkuntza murgilketako ere deitua, nahiz eta nire ustez ez den zehatz-mehatz murgilketako eredu bat—. Ereduren aldeko ondorio horretara iristeko, Konstituzio Auzitegiak interes gorenekoak iruditzen zaizkidan kontsiderazio batzuk egin zituen. Horrela, abenduaren 23ko 337/1994 Epaiak dio botere publikoek irakasbide den hizkuntza zehazteko ahalmena daukatela, hezkuntzarako eskubidea bermatzen duen Konstituzioaren 27. artikulua ez duelako irakaskuntzako hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatzen. Konstituzio Auzitegiarentzat, beraz, Konstituzioak ez du irakasbideko eta ikasteko hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatzen. Hau funtsezkoa da, zeren eta eskubide hau ez dagoen heinean bakarrik ezarri ahal izango baitute botere publikoek irakasbide den hizkuntza zehaztuko duen eredu bat. Konstituzioaren interpretatzaile gorenak gehiago ere esango du —eta testualki errepikatuko dut—: "legitimoa da katalana eredu elebidun honen grabitate zentru izatea, Kataluniako hizkuntza normalizatzeko helburuari jarraiki". Doktrina hau aprobetxatuz, Legeak orain bere baitan jasotzen du lehen 1992ko Dekretuan zegoena; izan ere, 21. artikuluko lehenengo atala irakurriz gero, ikusiko dugu katalana "normalean irakaskuntza ez unibertsitarioko irakasbideko eta ikasteko hizkuntza bezala erabili behar" dela esaten duela —ia-ia Dekretuko hitz berberak erabiliz—. Artikulu horretan bertan, 2. atalak, arauaren salbuespen gisa, dio hurrek eskubidea daukatela lehen mailako irakaskuntza (eta hau bakarrik) beren ohiko hizkuntzan jasotzeko.

Honegatik guztiagatik esaten nuzen hezkuntzari buruzko atal honi hasiera ematerakoan sektore honetan ez dela funtsezko aldaketarik gertatu. Katalunian jada aplikatzen zenaren berdina da araudia. Oстера, aldaketa formal garrantzitsu bat eman da: sistema hau, lehen, erregelamendu baten bidez bermatzen

zen; orain, aldiz, legez. Hots, izoztu egin da arauaren lerruna, eta, beraz, beste lege batek bakarrik aldatu ahal izango du eskolako hizkuntza eredu hau. Erregelamendu batek ezin izango du halakorik egin.

#### 4.5. Hizkuntza eskuhartze konstriktiboa sektore pribatuan

Nire ustez garrantzitsuena den gaiari helduko diot, Legeak ekarri duen aldaketarik handienari: jarduera sozioekonomikoaren arloko hizkuntza eskuhartze konstriktibo, inperatibo, eta hertsapenezkoa, Finantza erakundeen 15. artikuluaekin osatu behar dugun V. kapituluko arau batzuetan aurreikusi dena. Eta zer dio, bada, Legeak? Zenbait jarduera eta agiri behintzat katalanez egin behar direla. Hortaz, katalana erabiltzera derrigortzen du Legeak, beste edozein hizkuntza erabiltzea galarazi gabe. Zein jarduera, zein agiri? Ez dago subjektu guztientzat erregela homogenezorik. Legeak subjektu mota batzuk bereizten ditu, eta bakoitzaren tipologiaren arabera zehazten du zeintzuk diren behintzat katalanez egin beharreko jarduera eta agiriak.

Nola mailakatzen ditu Legeak behintzat katalanez egin behar diren jarduera eta agiriak? Subjektuek Administrazio publikoekin daukaten lotura mailaren arabera; Administrazio publikoekin zenbat eta lotura handiagoa izan, orduan eta agiri eta jarduera gehiago izango dira behintzat katalanez egin beharrekoak. Logikoa; Administrazio publikoetatik gertu egonez gero, hizkuntza arloko obligazioak betetzera behartuago egongo dira.

Legeak, lehendabizi, Generalitateko eta Toki gorporazioetako enpresa publikoak eta hauen enpresa emakidadunak bereizten ditu (30. artikulua). Subjektu hauek normalean katalana erabili behar dute beren jardueratan, barne agiri eta errotulazioan, ekoizten edo eskaintzen dituzten produktu edo zerbitzuak erabiltzeko jarraibideetan, etiketan eta enbalajeetan; baita komunikazio, jakinarazpen, faktura eta trafikoko gainerako agirietan ere. Jarraian, 31. artikuluan, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresa eta entitate publiko edo pribatuak desberdintzen ditu. Arau honen arabera, subjektu hauek behintzat katalana erabili behar dute errotulazioan, komunikazio megafonikoetan, komunikazio eta jakinarazpenetan, fakturretan eta trafikoko gainerako agirietan. Enpresa kontzertatuek, Administrazioen batekin lankidetzaz hitzarmen bat daukatenek eta diruz lagundutakoek —33. artikuluan jasotako supostuak— harreman estua daukate Administrazioekin, baina betebeharrak gutxiago daukate, hots, errotulazioan, oharretan eta

jendeari zuzendutako agirietan erabili behar dute behintzat katalana. Beste subjektu mota bat ere aurreikusten du Legeak: jendeari irekita dauden establezimenduak. Zentzu hertsian pribatua den eremua da honakoa; horregatik, zuhur jokatzeko du Legeak, betebeharrak txikiagoak finkatuz. Bere 32.3 artikulua arabera, behintzat katalanez idatzita egon beharko dute seinaleztapen eta informazio orokorreko kartel finkoek —eta finkoek baino ez—, eta establezimendu hauetako erabiltzaile eta kontsumitzaileentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten agiriak. Betebeharrak honetatik kanpo gelditzen dira jabetza industrialaren legediak babesten dituen marka, merkataritza izen eta errotuluak. Amaitzeko, eta eremu pribatuan jarraituz, 32.3 artikulua esparruan sartuta dauden finantza erakundeak, 15.5 artikulua arabera behartuta daude txekuek, ordaindukoak, taloitegiak eta bezeroei eskaintitako gainerako agiriak behintzat katalanez idatzera.

Neurri konstriktibo hauek guztiak —oro har laburbilduta— dira Hizkuntza Politikako Lege berriaren eskutik etorri direnak, Generalitatearen emakidapean dauden irrati eta telebistentzako hizkuntza kuota ezartzearekin batera —irratidifusioko emisoreek emisio denboraren gutxienez %50a katalanez egingo dutela bermatu beharrean printzipioa ezartzen du Legearen 26. artikulua—, eta Kataluniako zine aretoetan banatu eta emango diren produktu zinematografikoentzako pantailako hizkuntza kuota aurreikuspenarekin batera —katalanaren kuota %25 eta 33 ingurukoak dira—.

Zer esan neurri hauei buruz, kontuan izanik gainera zehapenak aurreikusten dituztela betetzen ez dituztenentzat? Neurri hauek izan dira, zalantzarik gabe, Legearen aurka azaltzen direnek gehien kritikatu dutena. Herriaren Defendatzaileak berak oso ebazpen gogorra eman zuen Hizkuntza Politikako Lege berriaren zenbait alderdiren aurka, batik bat bi gauza jartzen zituelarik zalantzan: batetik, katalana izatea Administrazio publikoen barne jarduera eta prozeduratako hizkuntza, gaztelararen hizkuntza ofizial izaera baztertu egiten zela uste baitzuen; eta, bestetik, eremu pribatuko hertsapenezko eskuhartze hori, Legearen 32.3 artikuluko, Konstituzioan aintzatetsitako askatasun eskubidearen aurkakoa zela ulertzen baitzuen.

Niri dagokidanez, ez dut inolako inkonstituzionaltasunik ikusten Legean jasotako hizkuntza eskuhartze konstriktiboetan. Ezagutzen ditugu arlo sozioekonomikoko eskuhartze hauek; produktuak etiketatzeko arloa jo besterik ez dugu egin behar ikusteko zeinen ohikoa den araudiak elikagaien etiketek behintzat gaztelaraz joan behar dutela agintzea. Beraz, ez da harritzekoa orain Lege kataluniarrak beste agiri edo jarduera sozioekonomikoei behintzat katalanez joan behar dutela esatea. Edonola ere, ikuspuntu juridikotik,

"behintzat gazteleraz" horrek oinarri konstituzional bat daukela argudia dezakete batzuek, hain zuzen ere Konstituzioak espreski bermatzen dituen osasunaren babesa, eta erabiltzaile nahiz kontsumitzaileen defentsa eta babesa, izan ere babes honek produktuen etiketatako beharrezko datuak hiritarrek ulertzeko moduko hizkuntza batean idatzita egotea exigituko luke, eta hori behintzat gazteleraz idaztera derrigortuz bermatuko litzateke. Hauxe izango litzateke, beraz, etiketan adierazpen askatasuna —zeinak hizkuntzarako askatasuna barnebiltzen duen— legitimoki murrizteko oinarri juridikoa.

Zein titulu juridiko da jendeari irekita dauden establezimenduetan hertsapenezko hizkuntza eskuhartzeak legitimatzen dituena? Nik uste dut ikusitako bi tituluez gain badaudela eremu sozioekonomiko pribatuan hertsapenezko hizkuntza eskuhartzea egitea baimentzen duten beste titulu juridiko batzuk, hala nola hizkuntza normalkuntzarako edo hizkuntzen babeserako tituluak. Kataluniako Autonomia Estatutuak, Generalitateak bi hizkuntzen (katalana eta gaztelera) erabilera normal eta ofiziala bermatuko duela aurreikusten du bere 3.3 artikuluan. Ez erabilera ofiziala bakarrik, baizik eta baita normala ere. Eta erabilera normala bermatzeko betebeharrak hau da hertsapenezko neurri horiek legitimatzen dituen titulu juridikoa —oraindik katalana anormalki erabiltzen da jendeari irekita dauden establezimenduetan, eta egoera hau ez dator Kataluniako hizkuntza propioa izatearekin bat—. Konstituzioarekin berarekin lotuta dagoen titulu juridikoa. Gogora dezagun hizkuntza modalitate desberdinek errespetu eta babes berezia behar dituztela adierazten duela honek —berezia, dio Konstituzioak—.

Hizkuntza normalkuntzarako eta hizkuntzen babeserako titulu juridiko hauek oso etereoak direla pentsatzen dutenei, Zuzenbide konparatura jotzeko esango nieke. Revista Vasca de Administración Pública-ra bidali dudana lan batean —54. zenbakian argitaratuko dela uste dut— xehetasunez aztertu dut puntu honi buruzko Zuzenbide konparatua; beraz, hemen labor-labor esaten ari naizena zehaztasun gehiagorekin irakurtzeko parada izango duzue bertan.

Izan ere, Estatu eleanitz demokratikoetan, hala nola Suitzan edo Kanadan, ohikoa da legediak errotulu, entseina, leku publikoetan ezarritako kartelek nahiz merkataritzako iragarki guztiek hizkuntza zehatz batean joan behar dutela finkatzea: Tizinioko kantoian, italieraz; Kanadako Quebec probintziaren kasuan, frantsesez. Suitzako Auzitegi Federalak, Tizinioko kasuan, eta Kanadako Gorte Gorenak, Quebec-en kasuan, abalatu egin dute legedi konstriktibo hau, eta bakoitzaren Konstituzioarekin bat datorrela adierazi. Auzitegi biek diote legedi honek mugatu egiten duela adierazpen askatasuna —eta ni neu

## “ Hona Legeak ekarri duen aldaketarik handiena: jarduera sozioekonomikoaren arloko hizkuntza eskuhartze konstriktibo, inperatibo, eta hertsapenezkoa ”

bat nator jurisprudenzia honekin—, askatasun honek ez duelako ideiak adierazteko askatasuna bakarrik barnebiltzen, baizik eta baita ideia horiek transmititzeko modua hautatzeko askatasuna ere (hizkuntza aukeratzeko askatasuna). Baina, berehala —eta interes gorenekoa iruditzen zait—, bai Suitzako Auzitegi Federalak, bai Kanadako Gorte Gorenak, honako arrazonamendua erantsi dute: egia da adierazpen askatasunak hizkuntza aukeratzeko askatasuna barnebiltzen duela, baina egia da, halaber, badagoela adierazpen askatasun hau murrizterik, zenbait zio medio: orden publikoagatik —esango du Suitzako Auzitegi Federalak—; gizarte aske eta demokratiko batean justifikatuta dauden zioengatik —Kanadako Gorte Gorenak—. Suitzako Auzitegi Federalarentzat, hizkuntza taldeen arteko oreka mantentzea orden publikoko zio bat da, eta, hori bermatzeko, Tizinioko kantoian entseina, kartel eta errotuluak behintzat italieraz egotea arrazoizkoa dela deritzo. Kanadako Gorte Gorenarentzat, gizarte aske eta demokratiko baten parametroen barruan justifikatzen da jendaurreko kartelek eta merkataritza iragarkiek Quebec-en frantsesez joan behar izatea. Frantsesa bermatzeko, logikoa da frantses giro edo paisaia bat egotea. Auzitegi biek diote hizkuntza bat erabiltzera behartzen duten xedapenak egotea ez dagoela adierazpen askatasunarekin guztiz kontrajarrita, beti ere beste hizkuntzak erabiltzea oztopatzen ez bada. Dena den, irizpide honi jarraituz, Kanadako Gorte Gorenak Konstituzioaren aurkakotzat jo zituen eskusiboki frantsesa erabiltzera derrigortzen zuten eta beste hizkuntzak erabiltzea oztopatzen zuten Frantsesaren Gutuneko arauak.

Ikus dezakezue, Katalanaren Legeak ez du katalana eskusiboki erabiltzera behartzen. Beraz, eta oso labor adierazi berri dizuedan jurisprudenzia honekin bat eginik, iruditzen zait





Lege kataluniarrak justifikatuta, arrazoizko modu batean eta proportzionalki murrizten duela adierazpen askatasuna, gure Konstituzioak onartzen duen murrizketa bat izanik. Funtsezko askatasun baten murrizketa baten aurrean gaude, baina Konstituzioak berak gorde nahi dituen ondasun juridikoek baimendutakoa; kasu honetan, hizkuntza desberdinen biziraupenaren berme eta babesak.

Zehapenei dagokienez, ez naiz alde edo aurka arituko. Nik uste dut hobe dela zehapenak ezarri beharrik ez izatea, baina Hizkuntza Politikako Legea, lege oro bezala, betearazi egin behar da, eta, hortaz, logikoa da aurreikuspen zehatzaile bat egotea Legean jasotako betebeharrak betetzen ez dituztenak onbideratzeko. Agian harrigarria suertatuko zitzaizuen Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak zinematografia arloko zehazpenen aplikazioa eseki izana. Zinematografiako kuotak ez betetzeagatik finkatutako zehapenen inguruan, Legearen beraren akats larri bat nabari dut. Lege honek beste legeetara eragortzen du arlo sozioekonomikoko eta irratidifusioko urrapen eta zehapenen kasuan, baina zinematografiaren kasuan ez du eragorpen garbirik egiten; horregatik, berez, esparru hau garatzen duen irailaren 8ko 237/1998 Dekretua da urratzapen motak eta zehapenak finkatzen dituena. Dakizuenetz, urrapen eta zehapen orok lege mailako testu batean argi eta garbi tipifikatuta eta zehaztuta egon behar du, eta ez erregelamendu mailako arau batean. Pena da Legea puntu honetan gaizki landu izana, eta ados nago Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren iritziarekin, hau da, legearen estaldurarik eza presumitzearen ondorioz, Dekretuko zehapenei buruzko artikulua esekitzearekin.

Legearen aurreikuspen gabezia, legegilea zehapenen koadro bat sartzera ausartu ez izanaren ondorio da, asko kritikatu baitzen zehapenen auzia prentsa eta komunikabideetan, eta azkenean Legean eragorpen arraro bat sartzea erabaki zen, baina ez zen aski, eta orain hasi gara bere ondorio kaltegarriak ikusten. Gainera, honek agintea kenduko dio Legeari, baita Administrazioak Legeak argitasun eta zuzentasun juridiko handienarekin baimentzen duen lekuan zehatzerakoan ere.

## 5. Kontsiderazio kritiko batzuk

Zehapenekin kritikaren bat egin diodanez Legeari, bukatzeko, eta baimena ematen baldin badidazue, kontsiderazio kritiko batzuk egingo ditut. Hasieran, kategoria juridiko klasiko batzuren falta somatzen nuela esan dut. Deformazio profesionalagatik izango da agian, baina nik uste dut Legea teknikoki perfektuagoa izan zitekeela;

izan ere, jarduera sozioekonomikoetako hizkuntza betebeharrak zehatzerakoan, zertxobait arbitrarioki adierazten ditu subjektu mota desberdinak, oro har kategoria klasikoagoak eta sustrai juridiko gehiago dutenak alboratuz, eta hori akats larri bat iruditzen zait. Hori dela-eta, Legeak ez du —esaterako— merkataritzako establezimendu handiez hitz egiten, nahiz eta hauek finkatzeko beste edozein merkataritza establezimenduren kasuan baino baimen konplexuagoak behar diren. Establezimendu handiek Administrazioaren babes handiagoa daukatenez, "bigarren baimena"-ren beharra dago. Horregatik, hizkuntza galdakizun gehiago ezar dakizkiekeela uste dut, hauek zabaltzeko askatasuna ez delako beste edozein denda txiki irekitzekoaren modukoa. Lehen, adibidez, domeinu publikoaren irudi juridikoa faltan botatzen dudala esan dizuet. Legea zerbitzu publikoaz mintzo da, baina ez domeinu publikoaz. Nire ustez, establezimendu zehatz batzuetan, domeinu publikoa erabilgarria izango zatekeen jendeari irekitako establezimenduetarako Legeak oro har aurreikusten dituen hizkuntza baldintzak baino konstriktiboagoak finkatzeko. Kioskoez edo udal merkatuetan dauden dendezen pentsatzen ari naiz, besteak beste. Espaloian dagoen kiosko batek, domeinu publikoaren erabilera anormal batez baliatzen den jarduera sozioekonomiko bat dauka. Ezin da edonor espaloia erdian jarri. Emakida bat behar da. Beraz, hemen ez dago merkataritzarako eta konkurrentziarako askatasunik, baizik eta subjektu batzuren pribilegio bat, zeintzuei ordenamenduak titulartasun publikoko leku horretan pribatuki ezartzea baimentzen dien. Nire ustez, legegilea zorrotzagoa izan zitekeen subjektu hauei hizkuntza ukanbeharrak ezartzeko orduan. Baina kiosko bat, Legearen tipologian, jendeari irekitako establezimendu soil bat baino ez da.

Lehen, zerbitzu publikoei eta zerbitzuen liberalizazioari egin diet aipu. Legea bai mintzo dela zerbitzu publikoez, baina gaizki ordea; izan ere, 31. artikuluan —zeina zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresa eta entitateez mintzatzen baiten— adibide batzuk ipini ditu legegileak: garraioa, hornidurak, komunikazioak, etab. Baina kontua da garraio guztiak, adibidez, ez direla zerbitzu publiko. Beraz, artikulua gaizki formulatuta dago. Gogora dezagun doktrinak, adibide bat ipintzearen, ez dituela taxiak zerbitzu publikotzat hartzen —ez behintzat zentzu hertsian—, eta jurisprudenzia ere irizpide bera jarraitzen du. Zergatik ez du Legeak zerbitzuen zerrenda argi eta zehatz bat egin, Toki Eraentzako Oinarrien Legeko (LBRL) 86.3 artikulua egiten duen modura, non tokiko entitateen aldeko erreserbarako zerbitzu eta jarduerak espreski adierazten diren? Zergatik ez da zerbitzu eta jardueren zerrenda espresu eta esplizitu bat egin? Askoz ere argi eta eraginkorragoa izango zatekeen, eta ziur aski etorkizunean etorriko

zaizkigun arazo asko ekidingo ziratekeen. Izan ere, zera esango du enpresa askok: "ez, ni ez nago Legearen supostu honetan (31. artikulukoan, esaterako); ni bestean nago, 32.3koan, eta betebeharrak gutxiago inposatzen dizkit". Zer gertatzen da eraikin publikoak zaindu eta babesten dituzten segurtasun enprekin? Enpresa kontzertatuak dira, ala lankidetzaren hitzarmenak dauzkatenak? Zergatik ez dira espreski izendatzen? Eta abar, eta abar. Gainera, zerbitzu publikoari buruz esan behar da Legeak izen horrekin aipatzen dituen guztiak ez direla zerbitzu publiko, eta, Legean aipatuta egon edo ez, beste batzuek hala izateari utz diezaieketela, edota duela gutxi utzi diotela izateari, ondorioz ez direlarik Legeko 31. artikulukoaren menpe egongo, baizik eta 32.3 artikuluko ezartzen dituen betebeharrak txikiagoen menpe.

Supostu bat aipatuko dizuet, eta barkaidazue apur bat morbosoa baldin bada, hileta zerbitzuei buruzkoa da-eta. 1985eko Toki Eraentzako Oinarrien Legeak udalerriei erreserbatzen zizkien hileta zerbitzuak, eta, beraz, zerbitzu hauek udalerriri eskaintzen zituenez — bai behintzat Katalunian—, errespetatu egiten ziren hizkuntza ofizialkidetasunaren arauak, eta bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen. Neurri liberalizatzaileen ondorioz, 1996an zerbitzuak utzi egin zioten erreserbatuta egoteari, eta pribatizatu egin ziren. Zein hizkuntza betebeharrak daukate orain hileta zerbitzuek? Legegileak, 32.3 artikulukoak edukiko lituzteketela erantzuneko liguke ziur aski. Ez dago gaizki. Seinaleztapenek, informazio orokorreko kartel finkoek eta zerbitzuen eskaintzako agiriekin behintzat katalanez egon behar dute. Baina egunkarrietan irakurtzen dugunari so eginez, ikusiko dugu enpresa hauetako asko atzerritarrek direla edo izango direla, kapital itzelen jabe izanik inbertsio eta negozio handiak egiteko prest daudenak. Aldiz, seguraski ez dituzte gure nazioetako errealitate soziolinguistikoak ezagutzen, eta, beraz, ziur naiz Legearen 32.3 artikuluko —ia ziur irakurri ere egin ez dutena— ukanbeharrak bete gabe finkatuko direla behin baino gehiagotan. Agian, aipatu enpresak Legean espreski aipatuko balira ere, ez lituzkete legegileak ezarritako hizkuntza betebeharrak beteko, baina, nire ustez, kasu horretan errazagoa izango litzateke exijitu ahal izatea, eta, ez betetze kasuan, auzitegietara eramatea. Oso grafikoa iruditzen zaidalako ipini dut adibide zehatz hau. Azken finean, ekidinezinak dira hileta zerbitzuak.

Nire hizkuntzan egitea galarazi zidan nazio batean jaio nintzen. Gurasoek katalanez inskribatu nahi izan zuten nire izena, baina ezin izan zuten halakorik egin, eta beraiena ez zen hizkuntza batean inskribatzera derrigortu zituzten, niri zuzenean transmituko ez zidaten batean, gazteleraz alegia. Tira, izena gure hizkuntzan insriba dezakegun garai honetan, ez litzaidake gustatuko nire hiritarkideak eta ni neu gurea ez den hizkuntza batean hiltzea.